

Gazte Panela

0.- Aurkezpena.

“Gazte Panela” egitasmoa Leizaola Elkarteak gauzatu eta burututako ikerketa xumea da. Ekintza lantzerakoan, Getxoko Fadura Institutuarekin harremanetan ipini ginen (eskerrik asko irakasle taldeari emandako erraztasunengatik), eta 17 urteko ikasleekin solasaldian aritu ginen alde batetik, eta, bestetik, prestatuta generamatzan galdetegia bete zezatela eskatu genien.

Lantxo honen asmoa egungo gazteek atseginagoak dituzten ohiko hedabide eta hedabide berrietako edukiak identifikatzea da, eta, bide batez, nola somatzen dituzten euskarazko hedabideak eta nolako erabilera egiten duten aztertu.

Guztira, Institutuko D ereduan diharduten panelaren dinamikan 13 izan ziren aritu zirenak. Datuak biltzeko jarraitutako metodologia honakoa izan zen:

- 1.- Saioa: Ekintzaren aurkezpena, euskarazko aldizkari eta egunkarien banaketa.
- 2.- Saioa: Emandako materialak irakurri eta aztertu ondoren, taldean beraiekin solasaldian aritu. Ondorioak jaso gako hauek jarraituz:
 - Euskararen eguneroko eta ohiko erabilera.
 - Euskaraz irakurtzeko eta ulertzeko gaitasuna.
 - Euskarazko hedabideen identifikazioa.
 - Gazteriak kontsumitzen dituen euskarazko hedabideak eta edukiak.
- 3.- Saioa: Norbanako galdetegia.

Lanaren arduraduna: David Hillera izan da.


1.- Euskararen eguneroko eta ohiko erabilera.

'Gazte Panela' 17 urte inguruko batxilergoko ikasleen artean egindako ikerketa da. Kasu honetan, azterketa Getxoko Fadura Institutuan gauzatu zen, Bizkaian. Batez ere, kontsumitzen dituzten euskarazko hedabideetatik zeintzuk diran gustokoen dituzten edukiak aztertzea da egitasmoaren xedea; hori dela eta, ikasleei banatutako inkestetan, euskarazko prentsa, irrati eta telebista kate edota Interneten inguruan galdetu zitzairen, gerora gaztelaniaz edota beste hizkuntza bateko emaitzekin alderatzeko.

Lehenik eta behin, galdetu zaie ea zenbat denbora ematen duten beren eguneroko bizitzan euskaraz hitz egiten; gazteen erdiek baino gehiagok hiru eta bost ordu artean dihardutela erantzun dute. Berriz, **%27 inguruk eguneko ordu bat baino gutxiago euskaraz** hitz egiten ematen dutela adierazi dute, eta, azkenik, haietariko %20k ordu bat eta hiru ordu artean ematen dutela erantzun du. Datu aipagarria da inkestatutakoen artean gazte batek ere ez duela esan bost ordu baino gehiago mintzatzen dela egunean euskaraz.

Oro har, inkestan parte hartu zutenek aho batez aitortu zuten **gehienbat eskola egunetan praktikatzen dutela euskara**.


1go GRAFIKOA: Ikasleen aldetik euskararen erabilera ohiko lanegunetan. Orduetan adierazita, kontutan hartuta 16 orduko oinarria (Hau da, 16 ordu jarraian euskaraz hitzegiteko edota euskarazko produktuak kontsumitzeko aukera izanik).



Eskolatik kanpo **aisialdian** egiten den erabilera oso urria da. Soilik **%8ak** adierazi zuen **asteburuetan eta jaiegunetan lagunartean noizbait euskara erabiltzen duela**, baina erabilera oso xumea da, eta egun batean ordubate baino gutxigokoa.

Aipatzekoa da ere lagunekin noizbait euskaraz hitzegiten dutenen **%90aren ama hizkuntza euskara dela**, eta **lagunak aukeratzekoan** beraien moduan **ama hizkuntza euskara izan dutenengana alderatzeko joera dute**.

2. GRAFIKOA: Ikasleen aldetik euskararen erabilera ohiko jaiegunetan. Orduetan adierazita, kontutan hartuta 16 orduko oinarria (Hau da, 16 ordu jarraian euskaraz hitzegiteko edota euskarazko produktuak kontsumitzeko aukera izanik).




2.- Euskaraz irakurtzeko eta ulertzeko gaitasuna.


Etxean jaso duten ama hizkuntzaren arabera, euskaraz edo gaztelera aritzerakoan erraztasun handiagoa adieraziko dute eta atseginagoa izango zaie sehaskatik ikasitako hizkuntza.

Ikerketan parte hartu duten gazteen **%90ek baino gehiagok etxean ez du euskaraz hitz egiten**; gainerakoen etxeko hizkuntza nagusia, aldiz, euskara da; alabaina, hori gutxiengo garbia da. Orokorrean, euskara eta gaztelania aurrez aurre jartzeko orduan, inkestatutako ikasle guztiek **erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz hitz egiterakoan eta, beraz, atseginagoa zaie gaztelera testuen irakurketa edota gaztelera tresnak erabiltzea** (webguneak, foroak, txat-ak, sare sozialak,...); aitzitik, irakurtzeko orduan, gutxiengo txiki batek (%10) nahiago du euskaraz egitea. Bestalde, lagunekin eta ikaskideekin berba egiterakoan, haietariko %90ek baino gehiagok gehienbat erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da, beste behin ere.

4. GRAFIKOA: Ikasle taldearen ama hizkuntza.



5. GRAFIKOA: Ulermen gaitasuna. Zein da nahiago duten hizkuntza?




Honela, oharkabez aztertutako ikasle taldea oso egokia da burutu nahi izan dugun ikerketarako. Izan ere, ezinbestekoa da euskara eskolan ikasi duten gazteei hizkuntza erabiltzera bultzatzea, eta asmo hori lortzarren, eskaintza erakargarri eta sendoa sustatu behar dugu derrigorrez. Bide horri eutsiz, erabilera areagotuko dugu.

3.- Euskarazko hedabideen identifikazioa.

Ikerketan parte hartu duten gazteek euskarazko hedabide ezagunenak noizbat irakurri edota ikusi dituzte. Aho batez *ETB1*, *Euskadi Gaztea* eta *Berria* aipatzen dituzte beraiantzako ezagunenak diren hedabide moduan. Herri mailan, *Bizarra Lepoan* ezaguna zaie. Jasotzailearen profilararen arabera, *Gaztezulo* aldizkaria eta *Gazteon KZ* aldizkaria ere ezagutzen dituzte, baina azken bi hauek Institutoan jasotzen dituztelako eta irakasleek helarazten dizkietelako.

Teknologia berriaren eremuan, *Wikipedia* (euskarazko bertsioa), *eitb.com*, *zientzia.com* eta *Hiztegia 3000* aipatzen dituzte. Ondorio moduan, bisitatzen dituzten webguneak eskolako zereginekin lotuta daudela aipa dezakegu, eta aisialdiaren esparruan ez dira euskarazko aukerak azaltzen (adibidez, euskarazko sare sozialak –*Facebook* euskeraz, besteak beste–, euskarazko webguneak,...).

6. GRAFIKOA. *Ikasle taldeak ezagutzen eta aipatzen dituen euskarazko hedabideak. (%)*




Orohar, argi dute euskarazko eskaintza gaztelerazkoa baino askoz murriztagoa dela, eta jarraian aipatzen den moduan, euskara hutsean landutako produktu gehiagoren premia dagoela uste dute.

4.- Gazteriak kontsumitzen dituen euskarazko hedabideak eta edukiak.

Bestalde, 17 urteko gazteei ere galdetu zitzaien ea noizbait irakurtzen zuten euskarazko prentsarik: kasu honetan, klase osoaren %61,5ek baiezkoa eman zuen; aitzitik, gainerako %36,5ek **inoiz ez du euskarazko prentsarik irakurtzen**. Euskarazko aldizkari edo egunkarietan aurkitzea gustatuko litzaieken **edukiak kirolaren, musikaren eta telebistaren ingurukoak** dira. Haietariko gehienentzat ere oso interesgarriak dira informazio orokorrari buruzko **elkarrizketak edo erreportajeak**. Era berean, haien eskaeren edo nahien artean telebista kate gehiago euskaraz edo sare sozialak euskaraz erabiltzeko aukera izatea da.

7. GRAFIKOA. Euskarazko aldizkari eta egunkariak irakurtzen al dituzu? (%).



Euskararen sustapenean erakunde edo instituzio publikoek izan beharko luketen jarrerari dagokienez, galdetegiari erantzuna eman zioten gazteek uste dute udalek, aldundiek edota Jaurlaritzak euskarazko **komunikabide gehiago plazaratu** edo aldarrikatu behar dituztela, haien artean: euskara hutsez aldizkari gehiago ateratzea edo **euskarazko telebista hobetzea** (batez ere, edukiei dagokien aldean). Zentzu horretan, nahiko kritikoak ageri dira egungo ETB leko programazioarekin.

Orokorrean, gazte hauentzat oso garrantzitsua izango litzateke aukera edo baliabide gehiago eskaintzea, gehienbat gazteei zuzendutako informazio edota edukiekin.

Zehazki, kontsumitzen dituzten euskarazko aldizkari, egunkari, telebista edo irrati kate eta webguneen inguruan ere galdetu zitzaien, eta ia guztien erantzuna oso antzekoa edo berbera izan zen. Paperezko hedabidei dagokionez, ikasleen %80 inguruk **Gaztezulo** irakurtzen du, euskarako irakasleak hilabetero banatzen baitu; bestalde, haietariko %50ek **Berria** egunkaria noizbehinka ere irakurtzen du. Euskarazko telebista eta irratiaren kasuan, gehienek **ETB1 eta Euskadi Gaztea** ikusten edo entzuten dute;

bigarren aukera, berriz, **ETB3** kate berria izango litzateke. Azkenik, informazioa euskaraz argitaratzen duten Interneteko webguneen artean, **eitb.com eta Wikipedia** izan dira gehien errepikatzen direnak; horien atzetik 3000 Hiztegia eta zientzia.com daude, hezkuntza eta dibulgazioan zentratuta dauden webguneak, hain zuzen ere.

Bestalde, ikasle gazteek zer kontsumitzen edo zer gustatzen zaien jakiteko edo asmatzeko, ikusten, irakurtzen edo entzuten dituzten hedabideen inguruko galdera-sorta egin zitzairen. Prentsa edo liburuei dagokienez, atal honi euskaraz jarritako puntuazioa 3,5koa izan da (hamarren gainean), hau da, gaztelaniaz baino 4 puntu gutxiago. Irratiaren kasuan, hizkuntza batetik besterako alde txikiagoa izan da, ia 3 puntukoa, hain zuzen ere. Telebista kateei dagokienez, berriz, euskaraz emititzen dituzten kateei 5,2ko puntuazioa eman diete, baina **askoz nahiago dituzte euskaraz emititzen ez duten kateak**, 8,8 puntu lortu baitituzte. Gizarte-sareek gero eta indar handiagoa dute egungo gazteen artean, baina euren erabilera gehienbat gaztelaniaz izaten da; izan ere, euskarazko erabilaren nota 3,1koa den bitartean, gaztelaniazkoa, aldiz, 7,9koa da. **Oreka handiena duen atala musika arloa da**; euskal musikak 7,2 puntu ditu eta euskarazkoa ez den musikak (edozein hizkuntza barne) 8,8ko puntuazioa lortu du, hau da, musika eremuan 1,5 puntuko alde ateratzen dio soilik atzerriko hizkuntzak euskarazkoa denari.


Azkenik, gazteei proposatu zitzairen komunikabideetan agertzen diren 17 atal edo eduki desberdin puntuatzeko edo atseginenak zeintzuk diren aitortzeko; **notarik altuena lortutako edukia filmeena izan zen**, gainerakoekin alde nabarmena erakutsiz, gainera (7,8 puntu lortu zituen, hain zuzen ere). Filmeen atzetik telesailak daude, 6,9ko notarekin; ondoren, webguneak bisitatzeko, jokoak, nobelak, erreportajeak, kirolak, gizarte-sareak eta denbora-pasak daude, horiek guztiak 6 puntu baino gehiagorekin. Bestalde, nota eskasarekin gainditu duten atalak talk-show motako programak eta esamesak izan dira, bost puntu baino gehiagorekin. Aldiz, **zerrendaren behealdean kulebroiak** daude (2,7 punturekin); horien gaineratik, baina nota baxuarekin, reality-showak eta argazki-nobelak daude, biak 3,5 eta 4,5 punturen artean. Amaitzeko, gainditzera iritsi ez diren beste eduki batzuk txatak eta dokumentalak izan dira.

Idatzizko inkestaren emaitzak:


Gazteentzako erakargarriagoak diren edukien zerrenda eta emandako puntuazioa:

| EDUKIAK | NOTAK |
|---------------------------|--------------|
| Filmeak | 7,8 |
| Telesailak | 6,9 |
| Webguneak bisitatu | 6,8 |
| Jokoak | 6,7 |
| Nobelak | 6,7 |
| Kirolak | 6,4 |
| Denbora-pasak | 6,3 |
| Gizarte-sareak | 6,3 |
| Esamesak | 5,8 |
| Talk-show | 5,2 |
| Txat | 4,7 |
| Dokumentalak | 4,5 |
| Argazki-nobelak | 4,4 |
| Reality-show | 3,5 |
| Kulebroiak | 2,7 |


8. GRAFIKOA. Emaitzen grafika: Eduki erakargarrienak ikuspegi formaletik. (Otik 10era puntuatu behar izan zituzten bete zuten inkestan).




10. GRAFIKOA. Idatzizko hedabideak eta liburuak. Zenbat egunkari, aldizkari, liburu... irakurtzen dituzu hizkuntza batetan edo bestean (Otik 10era puntuatu)?




11. GRAFIKOA. Irratia. Zenbat denbora entzuten duzu hizkuntza batetan edo bestean (Otik 10era puntuatu)?




12. GRAFIKOA. Telebista. Zein hizkuntzatan ikusten duzu gehienbat (Otik 10era puntuatu)?



13. GRAFIKOA. Sare Sozialak. Zein hizkuntza erabiltzen duzu (Otik 10era puntuatu)?



14. GRAFIKOA. Musika taldeak. Zein hizkuntzatan entzuten dituzu (Otik 10era puntuatu)?



5.- Ondorioak.

- Ama hizkuntzaren eragina ukaezina da. Hiztunak orohar seaskan ikasitako hizkuntza gogokoena izango da berarentzat.
- Gazteek euskara lanegunetan erabiltzen dute, bereziki eskolaren eremuan. Hortik kanpo (etxean, lagunartean,...) ama hizkuntzara joko dute, esparru honetan gaztelania nagusi delarik.
- Euskarazko hedabide nagusiak ezagutzen dituzte (ETB, Euskadi Gaztea) eta eskolako lanak egiteko lagungarriak zaizkien bestelakoak (3000 Hiztegia, Zientzia.com,...).
- Hedabide txikiagoak ezagutzen badituzte, (Gaztezulo) eskolan banatzen zaielako da.
- Euskarazko aldizkari eta egunkariak ere irakurtzen dituzte, baina sarritan ere eskolako lanekin lotuta egon daiteke irakurtzeko zaletasun hori.
- Gazteek euskararekiko jarrera positiboa adierazi dute, eta aho batez, euskarazko hedabide gehiagoren premia aldarrikatu dute.
- Euskal musikak harrera positiboa du gazteen artean. Ia erdiak euskarazko musika gaztelarazkoa baino gehiago entzuten duela adierazi du.
- Alderantziz, teknologia berrien eremuan, euskarazko sare sozialak ez dituzten ia erabiltzen, eta esparru honetan zeregin nabaria dagoela agerian geratu da.
- ETB1 ikusten badute ere, oso kritikoak azaldu dira telebista kateak eskaintzen duen programazioarekin.
- Eskola oso eremu egokia da euskaraz ekoiztutako materialak gazteriarri helarazteko (Gaztezuloren eredu).
- Euskarazko aisialdirako eskaintza indartu eta bultzatu behar da. Erakargarritasuna asko landu behar da.
- Filmeak: gehien gustatzen zaien edukia da. Euskarazko ekoizpena aregotzea eta bikoizketak bultzatzea bide egokiak izan daitezke euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko.
- Telesailak: Harrera bikaina dute gazteen artean, filmeekin batera.
- Eskola euskara ikasteko eremua izateaz gain, hizkuntza erakargarria aurkezteko esparrua ere izan daiteke, ekimen berritzaileen bidez, gazteri euskararuntz bideratuz. Gaztezuloren adibidea egokia da oso.
- Ikus-entzunezkoen indarra: telebista eta internet dira nagusi eta nahiago dituzten plataformak.